

ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAKO EUSKAL ESTRATEGIA GARATZEKO ERAKUNDE ARTEKO ITUNA

2018-2021

1. SARRERA ETA AURREKARIAK

2014ko urtarrilaren 16an, Europako Parlamentuak adierazpen ofizial bat plazaratu zuen; horren bitartez Europako Batzordeari eskatzen zion gehiago itxaron gabe estrategia europar bat presta dezala etxerik gabeko pertsonentzat. Onetsitako adierazpenak honako hau du abiapuntu:

- a) Etxerik ez izatea giza duintasunaren eta giza eskubideen urraketa da, eta pobrezia nahiz gabeziaren formarik larriena da.
- b) Etxebizitza gizakion funtsezko beharra da, eta ezinbestekoa da bizitza duina izateko eta gizarteko kide sentitzeko.
- c) Azken urteotan, etxebizitza-faltaren arazoa larriagotu egin da ia estatu kide guztietan.
- d) Krisi ekonomiko eta finantzarioa gogorren jasan duten estatuetan inoiz ikusi gabeko moduan ari da hazten etxerik gabeko pertsonen kopurua.

Besteak beste ideia horietatik abiatuz, Parlamentuak kide diren estatuei eskatu die garrantzi handiagoa eman diezaiotela etxerik gabeko pertsonen arazoa nazio-mailako beren erreforma-programetan txertatzeari. Gainera, Batzordeari eskatu dio honako alderdi hauetan arreta jar dezala, etxerik gabeko pertsonentzako EBren estrategia bat garatzeko:

- Etxebizitzara bideratutako ikuspegia hartzea eta etxerik gabeko pertsonen arazoari aurre egiteko ikuspegi horri lehentasuna ematea.
- Mugaz gaindiko etxebizitza-faltaren fenomenoak.
- Etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuen kalitatea.
- Etxerik gabeko pertsonen arazoaren prebentzioa.
- Etxerik gabeko gazteak.

Ilido beretik, 2016ko otsailaren 19an, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamen bat onetsi zuen; horren bitartez, honako hau eskatzen zion Eusko Jaurlaritzari: *“eskumena duten erakundeekin, gizarte-eragileekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean, hiru hilabeteko epean, estrategia integral bat gauza dezala eta Legebiltzarrari bidal diezaiola, etxerik gabeko pertsonen egoera errotik aldatzeko, etxerik gabeko pertsonen gizarteratze-prozesuak eta arreta integrala bermatzeko bizitzako esparru guztietan, modu koordinatuan eta bikoizketarik gabe”*.

Egun horretatik, euskal erakundeek beharrezko urratsak eman dituzte egoera eta egoitza-bazterkeria larrian dauden pertsonen beharrianak ezagutzeko; horretarako, xede horixe duen protokolo bat gauzatu eta sinatu dute. Horrez gain, urratsak eman dituzte Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (2018-2021) gauzatzeko. Erakundearteko itun hau sinatuz, guk ere bat egiten dugu.

Estrategia gauzatzeko prozesua 2016 erdialdean hasi zen, eta Erakundearteko Itun honen sinadurarekin bukatzen da. Etxegabetasunaren kontzeptualizazioa eta zehaztapenak, European

etxegabetasunaprebenitzeko eta errotik desagerrarazteko erabili diren estrategien eredu, ikuspegi eta edukiak deskribapena, eta Euskadiko etxerik gabeko pertsonen egoerari eta haien beharrazanei buruzko diagnostikoa eta arreta-ereduaren indarguneak eta ahulguneak jasotzen dituen oinarrien agiri bat gauzatu zen; horren bitartez, xede horretarako eratu zen erakundearteko lantaldeak Estrategia osatzen duten oinarrizko ardatzak, printzipioak eta gidalerroak zehaztu zituen.

Honako erakunde hauek hartu dute parte lantaldean:

- Barakaldoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Getxoko Udala
- Irungo Udala
- Laudioko Udala
- Portugaleteko Udala
- Santurtziko Udala
- Sestaoko Udala
- Gasteizko Udala
- EUDEL Euskadiko Udalen Elkarte
- Gizarte Zerbitzuen Saila. Arabako Foru Aldundia
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko Saila Bizkaiko Foru Aldundia
- Gizarte Gaietako Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia
- Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
- Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2. PRINTZIOAK, XEDEAK, ARDATZAK ETA GIDALERROAK

2.1. Estrategiaren oinarrizko ezaugarriak eta jarraipenerako tresnak

Hauek dira estrategia honek dituen oinarrizko ezaugarriak (egoitza-bazterkeria larriaren esparruko erakunde-ekintza planifikatzeko tresna gisa):

- **Izaera orientatzailea.** Itun hau sinatuz geure egiten dugun estrategiak izaera orientatzailea du funtsean; izan ere, inplikaturik dauden hainbat erakunderen jarduketa norabide zehatz batean bideratzeko gauzatu da. Horrenbestez, strategiaren helburua da adostutako zenbait printzipio, helburu eta gidalerroren bidez jarraitu beharreko bidea markatzea, gero erakunde bakoitzak bide hori jarduketa espezifikoetan zehaztu dezan. Hiru arrazoi hauek justifikatzen dute aukera hau:
 - o Alde batetik, strategiaren beraren erakundearteko izaera, eta arazo honi hainbat dimentsio aintzat hartzen dituen erantzuna emateko beharra.
 - o Beste alde batetik, inplikaturik dauden erakundearen autonomia eta jarduteko marjina errespetatzeko beharra. Horri dagokionez, uste dugu strategiaren funtzioa izan behar dela alderdi guztien artean adostutako eta ahalik eta modurik zehatzenean ezarritako zenbait printzipio eta gidalerro proposatzea, gero erakundeek erabaki dezaten zein diren haien lehentasun eta beharrianak, baita horiek jarduketa zehatzetan nola gorpuztuko dituzten ere.
 - o Bukatzeko, Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak plangintza-tresnen esparruan gauzatu duen jarduketa-lerroari eustearen komenigarritasuna; Sail horrek egindako estrategia gehienek izaera orientatzaile hori izan dute.
- **Borondatezkoa eta, aldi berean, loteslea den atxikipena.** Izaera orientatzaile horrekin batera, itun honen sinaduraren bitartez geure egiten dugun estrategia honek borondatezko izaera dauka, hau da, egokitzaile ematen duten erakundeak (Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eta organismoak, foru-aldundiak eta udalak) atxiki daitezke, bakoitzaren eskumenak eta lehentasunak kontuan hartuta. Estrategiak, gainera, izaera loteslea du borondatez bat egitea erabaki duten erakunde guztientzat. Izaera lotesle horren eraginez, estrategiarekin bat egin duten erakunde guztiek jarduketa zehatzak gauzatu beharko dituzte adostutako gidalerroak egia bihurtzeko; horrez gain, jarduketa horien jarraipena egiteko adierazleak jaso eta horien berri eman beharko dute.
- **Hiru faseko garapena.** Aurreko horretatik ondorioztatu daiteke estrategia hiru fase bereizi hauetan artikulatuko dela:

- Lehenengo fasea. Erakundearteko Itun hau sinatzean burutzen da. Fasearen helburua izan da Euskadiko egoitza-bazterkeriaren arazoari buruzko diagnostiko adostu bat gauzatzea, baita estrategia egiten parte hartu duten erakunde guztiek bere egingo dituzten zenbait printzipio, helburu eta gidalerro zehaztea ere. Fase hori.
- Bigarren faseak Erakundearteko Ituna sinatu eta hurrengo hamabi hilabeteak hartuko ditu. Fase horretan, Ituna sinatzen duten erakundeek beren planak diseinatuko dituzte, EUDEL izan ezik, bere helburuen artean herrien interes orokorren defentsa eta batera jardutea baitago eta ez baita programak betearazteko eragile aktiboa, adostutako gidalerroak aplikatzeko jarduketa zehatzekin. Inplikaturako erakundeek banaka egin ahal izango dituzte jarduketa horiek edo, bestela, bi erakunde edo gehiagoren arteko lankidetzak-hitzarmenen bitartez; horrela, posible izango da jarduketak gauzatzea gizarte-, osasun-, enplegu-, etxebizitza edo diru-sarrerak bermatzeko zerbitzuen arteko lankidetzarekin. Jarduketa horiei dagokienez, adierazi beharra dago kasu batzuetan ekimen berriak jarri beharko direla martxan, baina beste kasu batzuetan balitekeela parte hartzen duten erakundeek jada gauzatzen dituzten jarduketak edo neurriak aplikatzen jarraitzea, horiek zuzenean erantzuten badiete Estrategian ezarritako gidalerroei.
- Estrategiaren hirugarren fasean, bukatzeko, plan horiek garatuko dira, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egingo da.
- **Indarraldia.** Proposatutako strategiaren elementuetako batzuek paradigma-aldaketa dakarte; gainera, beharrezkoa da behar besteko epea ematea aurreikusitako jarduketa guztiak gauzatzeko. Hori kontuan hartuta, Enplegu eta Gizarte Gaien Sailaren gainerako plangintza-elementuen ildo beretik, lau urteko indarraldia (2018tik 2021era) aurreikusten da estrategia honentzat.
- **Estrategiak barne hartzen dituen jarduketak finantzatzea.** Estrategia honen esparruan erakunde bakoitzak gauzatzen dituen jarduketak erakunde bakoitzaren aurrekontuen kargura egingo dira edo, bestela, ohiko mekanismoen bidez eskura daitekeen kanpo-finantzaketaren bidez; edonola ere, ez da berariazko finantzaketa-mekanismoak sortuko estrategian ageri diren jarduketak finantzatzeko.
- **Jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak.** Estrategia hau honela egituratzen da: guztien artean gidalerro batzuk adostu dira, eta gero inplikaturako alderdiek jarduketa zehatzak gauzatu behar dituzte gidalerro horiek betearazteko. Artikulatzeko modu horren eraginez, beharrezkoa da jarraipen- eta ebaluazio-sistemak honako hauek ahalbidetzea:
 - Erakunde bakoitzak gauzatutako jarduketa zehatz guztiak eta strategiaren ardatz edo gidalerro bakoitzari loturiko jarduketa guztiak identifikatzea.
 - Jarduketa bakoitzerako prozesu eta emaitzen zenbait adierazle identifikatzea, honako hauei dagokienez: onuradunen kopurua, egindako gastua edo lortutako emaitzak.
 - Estrategia osoak egoitza-bazterkeria larriaren arazoari aurre hartzeko eta arazo hori jorratzeko izan duen eragina balioestea.

Horretarako, Idazkaritza Tekniko bat arduratuko da estrategia behar bezala ezartzen dela bermatzeko koordinazio-, lidertza-, jarraipen- eta sustapen-lanak gauzatzeaz. Idazkaritza horren erantzukizuna Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren esku egongo da, hori baita estrategia sustatzen duen erakundea. Idazkaritza Tekniko hori Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak garatu ahal izango du zuzenean edo, bestela, kanpoko erakunde baten esku utziko da. Funtzio hauek izango ditu:

- Inplikaturako erakundeek aldi-aldi ematen duten informazioa oinarri hartuta, estrategia honen esparruan gauzatu diren jarduketak guztiak identifikatzea, eta erakunde bakoitzak gauzatuko dituela hitzeman duen jarduketa-plan guztiei buruz eskura dagoen informazio guztia zentralizatzea.
- Prozesuen eta emaitzen adierazle-taula bat egitea eta eguneratuta mantentzea; taula horretan jarduketak bakoitzaren edukiei, artatutako pertsona kopuruari, egindako gastuari eta lortutako emaitzei buruzko informazioa jasoko da.
- Bi ebaluazio-txosten egitea. Lehen txostena 2018. urte bukaeran egingo da, eta hauek izango ditu helburu: erakunde bakoitzak egindako jarduketak aztertzea, garrantzia berezia emanez prozesuaren adierazleei eta behar bezala gauzatzen ari ez diren ardatzak edo gidalerroak identifikatzeari. Bigarren txostena planaren indarraldia bukatzean egingo da (2020. urteko egoitza-bazterkerian dauden pertsonen gaueko kontaketa egin ondoren), eta honako hau izango du helburu: planaren eragina aztertzea, bai egoitza-bazterkeriari aurre egiteko esku hartzeko ereduak aldatzeari dagokionez, bai etxegabetasuna hedatzeari eta kaltetutako pertsonen egoerari dagokienez.

Horrez gain, beharrezkotzat jotz gero, Idazkaritza Teknikoak estrategian aurreikusitako zenbait jarduketa gara ditzake, bereziki ikerketaren eta ezagutzak kudeatzearen esparruetan.

Idazkaritza Teknikoaz gain, itun honen sinaduraren bidez Erakundearteko Lantalde bat ere osatuko da. Lantalde horren ardura izango da estrategia ezartzen dela gainbegiratzea eta bertan jasotako gidalerro guztiak aplikatzen direla bermatzea. Lantaldea administrazio publikoek eta Hirugarren Sektoreko erakundeek osatuko dute. Honako erakunde hauek hartu dute parte lantaldean:

- Barakaldoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Getxoko Udala
- Irungo Udala
- Laudioko Udala
- Portugaleteko Udala
- Santurtziko Udala
- Sestaoko Udala
- Gasteizko Udala
- EUEL Euskadiko Udalen Elkartea
- Gizarte Zerbitzuen Saila. Arabako Foru Aldundia
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna sustatzeko Saila Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gizarte Gaietako Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Danok bizilekua izatearen eta aterpe bakoien aldeko plataforma (Beste Bi).
- Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin (EAPN Euskadi).

2.2. Printzipio orokorrak eta helburuak

Hauek dira Erakundearteko Itun hau sinatuz Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren esparruan (2018-2021) gauzatuko ditugun printzipio orokorrak:

- **Etxegabetasuna murriztea xede duen estrategia.** Helburu errealista eta pragmatikoak ezartzea komeni denez eta beharrezkoa denez, ez du zentzurik etxegabetasuna guztiz desagerraraziko duen estrategia bat egiten saiatzea; hala, estrategia honen helburua da adierazitako aldian modu hautemangarrian murriztea Euskadin kalean lo egin behar duten pertsonen kopurua. Printzipio hori formulatzeko, elementu hauek izan behar dira kontuan:
 - Beharrezkoa da helburu esplizitu bat ezartzea, epe zehatz batean kalean lo egiten duten pertsonen kopurua murriztea ardatz duena.
 - Estrategiak ETHOS tipologian aipatzen diren etxegabetasun-egoerak izango ditu ardatz, hau da, aterperik ez duten pertsonen egoera ¹ eta etxebizitzarik ez dutenena ²; ez ditu kontuan hartuko egoitza-bazterkeria osatzen duten gainerako kategoriak.
 - Gainera, etxegabetasunari aurre hartzeko eta arazo hori murrizteko estrategia bat egiteko, beharrezkoa da estrategia hau antzeko helburuak dituzten beste batzuegandik bereiztea (estrategiaren xedea ez da gizarte-bazterkeriari aurre egitea, eta ez da etxebizitza-plan bat), eta egoitza-bazterkeria larriari aurre egiteko berariazko plan bat dela ulertaraztea.
- **Eskubideen ikuspegia eta, zehatzago, eskubide bikoitzaren kontzeptua, oinarri duen estrategia bat da.** Itun honen bidez garatuko dugula hitzeman dugun estrategiak eskubideen ikuspegia du oinarri, besteak beste. EA Eren esparruan, ikuspegi horrek helburu argi hau izan behar du: egun dauden oztopoak ezabatzea, etxerik gabeko pertsonen indarrean dagoen araudiak eta, zehatzago esateko, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2018 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak eta Etxebizitzari buruzko 5/2015 Legeak, aitortzen dituzten egoitza, osasuna, diru-sarrera bermatuak eta gizarte-zerbitzuak izateko eskubide subjektiboa eskuratu ahal izan dezaten. Diru-sarrerak bermatzeko esparruan eskubide bikoitzaren kontzeptua sendotu da (hau da, diru-sarrerak bermatzeko laguntza ekonomikoa ematea eta gizarteratzeko beharrezko babesa eskaintzea); hala, estrategia honen abiapuntua etxerik ez duten pertsonentzat ere eskubide bikoitz hori bermatzeko beharra da: etxebizitza independente bat izateko eskubidea eta autonomia, bizi-kalitatea eta gizarteratzea izateko beharrezko laguntza jasotzeko eskubidea³. Esparru honetan, egoitza-eskubidea bermatzeko ardura etxebizitza-sistemari legokio; gizarteratzeko laguntza, berriz gizarte-zerbitzuen sistemak eman behar du.
- **Pertsonak eta etxebizitza ardatz dituen estrategia da.** Ikuspegi estrategikotik, Itun honen bidez garatzea hitzematzen dugun estrategiak dakarren aldaketarik handiena da etxegabetasuna ardatz zuen kudeaketa-eredu bat izatetik (gizarte-zerbitzuetan eta, bereziki, aldi baterako egoitzaren zerbitzuetan oinarritua), etxebizitzak eta pertsonak ardatz dituen kudeaketa-eredu batera igaroko garela. Ikuspegi hori hartzeak ondorio hauek dakartza:
 - Europako erakundeek gomendatzen dute egoitza ardatz duen ikuspegi bat hartzea; izan ere, ikusi da etxebizitza baterako sarbidea proposatzen duten zerbitzuak eraginkorragoak direla etxegabetasuna erroto konpontzeko. Ikuspegi hori hartzeak esan nahi du guztiz aldatu behar dela etxegabetasunean esku hartzeko modua, eta, horretarako, beharrezkoa

¹ Espazio publiko batean (estalperik gabe) bizi diren pertsonak edo gaueko aterpe batean bizi direnak eta/edo eguneko ordu ugari espazio publiko batean eman behar dutenak.

² Aterpeetan eta etxerik gabeko pertsonentzako zentroetan/aldi baterako egoitzetan bizi diren pertsonak, emakumeen aterpeetan bizi diren pertsonak, babes-eskatzaile eta etorkinentzako egoitza-zentroetan bizi direnak, epe zehatz batean egoitza-erakundeetatik edo barneratze-zentro batetik kaleratuko dituztenak eta etxerik gabeko pertsonak direlako laguntza-dun egoitza jasotzen dutenak

³ Benetan, eskubide hirukoitza da; izan ere, eskema honek eskatzen du pertsona horiei bizitza autonomia izateko behar dituzten diru-sarrerak bermatzeko, euren kabuz diru-sarrera horiek eskuratu ezin dituztenean.

izango da etxebizitzaren sistemak etxerik gabeko pertsonen egoitza egonkorra eskaintzea komunitatean errotutako ohiko etxebizitzetan. Bestalde, gizarte-zerbitzuek gizarte-eta hezkuntza-laguntza eta laguntza psikosoziala eman beharko diete pertsona horiei, modu ibiltarian, baita kasuan-kasuko intentsitatea kudeatzeko zerbitzuak ere, etxebizitza horietan modu egonkor eta autonomoan bizi daitezkeela bermatzeko. Horretarako, beharrezkoa da gizarte-zerbitzuen sistemaren gaitasuna indartzea, Zorroaren Dekretuko 1.1, 1.3, 2.7.2.1 eta 2.7.3.1 zerbitzuak eskaini ahal izateko, eta zerbitzu horiek gizartetik at dauden pertsonen ere helarazteko. Horrez gain, banakako laguntza-programak eta bitarteko irekian esku hartzeko programak ere sendotu beharko dira.

- Pertsonak ardatz hartzen dituen ikuspegi bat hartuz gero, gainera, bizi-kalitatearen, banakakotasunaren, autodeterminazioaren eta kontrolaren irizpideak modu sendoagoan txertatzen dira programak diseinatzeko eta exekutatzeke unean, eta horien intentsitate-eta exigentzia-maila aldakorrak ezarri beharko dira.

- **Estrategia integrala da, egoitza-bazterkeria larrian dauden pertsonen eragiten dieten arazo guztiei erantzun gaitia.** Estrategia honek berebiziko garrantzia ematen die etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloko politikari; hala ere, aitortzen du beharrezkoa dela beste esparru batzuetan ere neurriak hartzea, besteak beste enpleguaren, osasunaren, justiziaren, gizarte- eta hezkuntza-laguntza- eta laguntza psikosozialaren esparruan. Horrez gain, estrategiak beste esparru batzuetan ere aurreikusten ditu jarduketak, besteak beste etxerik gabeko pertsonen gizarte- eta kulturaren parte har dezaten, hezkuntza-baliabideak erabili ahal izan dituzten, herritarrek arazo horren inguruan duten ikuspegia alda dadin edo komunitate osoa era horretako egoerari aurre hartzeko eta horiek jorratzeko inplika dadin.
- **Aldi baterako egoitza-zerbitzuek eta eguneko nahiz gaueko harrera-zerbitzuek eskaintzen duten zerbitzuaren kalitatea ez ezik inguru irekian esku hartzeko zerbitzua ere hobetzea da estrategia honen helburua, Zorroa eta Gizarte Zerbitzuen Mapa behar bezala gauzatzen direla bermatzeko.** Etxebizitza ardatz duen eredu bat garatzeko hautua ez da eragozpenezko estrategia Zorroan eta Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotzen diren gaueko harrera-zentroen, egoitzen eta eguneko arretaren zerbitzuen kalitatea eta lurralde osoan zehar hedapena bermatzeko duten neurriak ere jasotzeko. Are gehiago, pentsa daiteke sare horiek oinarritzeko elementu izaten jarraituko duela arreta-sarean, bai beste baliabide batzuk lortu ezin dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, bai etxerik ez duten pertsonen etxebizitza independente bat eskuratzen laguntzeko.
- **Prebentzio-politikak azpimarratzen dituen estrategia bat da, batez ere etxegabetasun-arrisku handiena dagoen egoeretan.** Itun honen bidez garatuko dugula hitzemandako estrategiaren beste abiapuntuetako bat etxegabetasunari aurre hartzeko politikak garatzeko beharra da, batez ere alokairuak ordaintzeko laguntzak eta/edo etxegabe-arriskuan daudenentzako laguntza ekonomikoak sustatzeari, orientazio- eta bitartekaritza-zerbitzuak garatzeari edota egoitza- eta barneratze-zentroetatik emantzipatu eta loturak mozteko prozesuak planifikatzeko protokoloak garatzeari dagokionez. Ildo beretik, estrategiaren abiapuntua da egoitza-bazterkeriaren arriskua hasierako faseetan hauteman behar dela; izan ere, gero egoera horiek etxegabetasun bilaka daitezke, baita arreta goiztiarraren programak ezartzeko behar ere, kaleko kronifikazioa saihesteko.
- **Beharrian konplexuagoak dituzten pertsonentzako estrategia bat da, eta arreta berezia ematen die etxerik gabeko emakumeek dituzten arazo espezifikoak.** Estrategia hau proposatzeko arrazoiak bat da beharrezkoa dela laguntza espezifiko eskaintzea adina, osasun-egoera, harreman-zailtasunak, administrazio-egoera eta beste faktore batzuk direla-eta beharrian konplexuagoak dituzten pertsonen. Hori dela eta, zerbitzuak eskuratzeko baldintzak berezitasun horietara egokitu behar dira. Beste abiapuntuetako bat izan da genero-ikuspegia txertatu beharra dagoela etxerik gabeko emakumeen beharrian espezifikoak kontuan hartzeko.

- **Estrategia ezagutzaren kudeaketan eta frogetan oinarritutako praktikan oinarritzen da.** Bukatzeko, estrategia hau ezagutzen kudeaketan, esku-hartzeen ebaluazioan eta, azken finean, froga zientifikoetan oinarritu behar da.

Printzipio horietatik abiatuta, estrategia honek helburu nagusi hauek izango ditu:

- Etxegabetasunari aurre hartzeko politikak indartzea.
- Etxerik gabeko pertsonak artatzeko Euskadiko egungo eredua berbideratzea, pertsona ardatz duen eta etxebizitza xede duen arreta-eredu bat sortzeko.
- EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa osotara hedatzea, lurraldean zehar baliabideak ondo banatuta daudela bermatzea eta gizartetik at dauden edo horretarako arriskuan dauden pertsonentzako lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak bereziki indartzea, bai gizarte- eta hezkuntza-arazoen eta arazo psikosozialen kasuak eta esku-hartzeak kudeatzeari dagokionez, bai etxebizitza-zerbitzuei eta eguneko nahiz gaueko harrera-zerbitzuei dagokienez.
- Bermatzea etxerik ez duten pertsonen osasun-eskubideak errespetatzen direla, diru-sarrerak bermatuta dituztela eta laneko aktibazioa jasotzen dutela, edozein tokitan bizita ere.
- Beharrian bereziak dituzten etxerik gabeko pertsonen ematen zaien arreta hobetzea, batez ere egoitza-bazterkeria larria jasaten duten emakumeei.
- Etxerik gabeko pertsonen loturiko arazoen inguruko koordinazioa, ebaluazioa eta ezagutzen kudeaketa hobetzea.
- Gizarteak fenomeno hori ikusteko duen moduan eragitea, komunitateko eragileen inplikazioa areagotzea era horretako egoerak jorratzeko orduan, eta pertsona horiek jasaten dituzten biktimizazio-egoerei aurre hartzea.

Helburu horiek erdietsi diren jakiteko, meta edo helburu kuantitatibo neurgarri bat izan beharko dute: 2020. urterako EAEko udalerrri handienetan kalean lo egiten duten pertsonen kopurua nabarmen (gutxienez % 20) murriztea.

2.3. Jarduketa-ardatz nagusiak

Helburu nagusi horietatik abiatuta, estrategia 69 gidalerro zehatzen inguruan egituratzen da, eta gidalerro horiek bederatzi ekintza-ardatz nagusi hauetan biltzen dira:

1. Egoitza-bazterkeria larriari aurre hartzea.
2. Etxebizitzan oinarrituriko ikuspegia garatzea.
3. Gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzuetako baliabideak eta programak hobetzea.
4. Genero-ikuspegia indartzea egoitza-bazterkeriari aurre hartzeko eta arazo hori lantzeko politiketan.
5. Etxerik gabeko pertsonen herritarren eskubideak dituztela bermatzea, euren administrazio-egoera erregulatuta.
6. Sektorekako hobekuntzak egitea osasunean, diru-sarreraren bermean eta enplegua eskuratzeko orduan.
7. Etxerik gabeko pertsonen aisialdia eta hezkuntza izan dezaketela eta gizartean nahiz politikan parte har dezaketela bermatzea.

8. Komunitatearen sentsibilizazioa eta inplikazioa hobetzea egoitza-bazterkeriari aurre hartzeko eta arazo hori lantzeko.
9. Koordinazio, jarraipen-, ebaluazio eta ezagutzen kudeaketa-neurriak.

2.4. Gidalerroak

Aurreko orrialdeetan adierazten den moduan, jarraian aurkezten diren gidalerroak Estrategiaren oinarritzko egitura dira, eta estrategian bertan definitutako erronkei erantzuteko eta helburuak lortzeko orientazio estrategikotzat jotzen dira. Horrenbestez, estrategia garatzeko, ezinbestekoa da estrategiarekin bat egin duten erakunde guztiek gidalerro horiek betetzeko egin behar diren jarduketak espezifikoki praktikan jartzea.

Gidalerroei dagokienez, honako hau azpimarratu behar da:

- Gidalerro hauek estrategia honetan sartzeak ez du esan nahi lerro horietan jarduketarik egiten ez denik edo, are, gidalerro horiek beste plan batzuetan ez daudenik. Erakunde bakoitzak zehaztuko du, gidalerro hauek garatzeko beren plangintza egiteko unean, zein neurritan baliatuko dituen jada gauzatzen ari diren neurriak edo, kontrara, une horretara arte garatu ez direnak.
- Logikoki, gidalerro guztiek ez diete berdin eragiten edo ez dagozkie modu berean inplikaturako erakunde guztiei. Gidalerroetako batzuk strategiari batutako edozein erakundek egin ahal izango ditu; beste batzuk, berriz, erakunde batzuek baino ez. Dokumentu honetan ez da jarraibide bakoitzaren eta horiek gauzatzeko egokienak diren erakundeen arteko elkarrekotasunik ezartzen, baina lehen aipaturako erakunde arteko lantaldeak jarraipen bat egingo du erakunde bakoitzak zein neurri ezartzen dituen aztertzeko eta, hala, hutsunerik edo bikoiztasunek ez sortzeko. Erakunde arteko lantalde honen eginkizuna izango da, era berean, hainbat erakunderen arteko ituna eta/edo hainbat administrazioek hitzartutako ekintza behar duten jarduketak egiteko behar diren hitzarmenak sustatzea.
- Gidalerroak, oro har, osagarriak dira, baina kasu batzuetan gidalerro bat baino gehiago proposatu dira helburu bererako. Hortaz, formula bat baino gehiago planteatu dira helburu bererako.

1. ardatzaren gidalerroak. Egoitza-bazterkeria larriari aurre hartzea	
a)	Etxebizitzaren merkatura sartzeko edo beren etxebizitzan modu autonomoan mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako informazio-, orientazio- eta bitartekaritza-zerbitzuak abian jartzea; besteak beste, hala maizterren eta errentatzaileen arteko (alokairuen kasuan), nola banku-erakundeen eta hipoteken kostuari aurre egin ezin dioten pertsonen arteko (etxebizitza jabetzan izanez gero) bitartekaritza-zerbitzuak eskaintzean.
b)	Bitartekaritza- eta aholkularitza-zerbitzuak bultzatzea, honako honetarako: - Babes publikoko etxebizitzetan sartzeko diren pertsonen jabe, bizilagun, errentatzaile edo maizter gisa dituzten eskubide eta betebeharrak jakinaraztea. - Etxebizitza baten jabe nahiz maizterrek beren eskubide edo betebeharrei buruz dituzten zalantzak argitzea. - Komunitate bateko bizilagunen artean edo jabe eta maizterren artean bitartekari izatea, sor daitezkeen eta protagonisten artean zuzenean konpondu ezin diren gatazkak konpontzeko.
c)	Etxebizitza Zerbitzuak eginiko prebentzio-balorazioko eta gizartearen arloko esku-hartzeko zerbitzuak indartzea, bai tokiko mailan bai erkidego-mailan, kontratu-betebeharrak betetzeko laguntza behar izan dezaketen etxebizitzaren esleipendunekin lotuta.
d)	Etzegabetzeakprebenitzeko plan espezifiko bat egitea , bai jabetzako etxebizitzetan bai alokairuko etxebizitzetan, izan sustapen publikokoak izan jabetza pribatukoak. Plan horretan, une bakoitzean aplikatu daitezkeen araudiaren esparruan, sartu hala izango da alerta goiztiarreko sistemak abian jartzea, kolektibo batzuei eta/edo egoera jakinetan luzamenduak ezartzea (neguko hilabeteetan etzegabetzeak debekatzea, kasurako), ostatu-alternatibak eskaintzea eta ordainean emateko borondatezko formulak bultzatzea.
e)	Eusko Jaurlaritzak eta/edo EAEko gainerako administrazioek garatutako familia-gainzorpetzerako laguntza-zerbitzuak bultzatzea.
f)	Diru-sarreraren bermerako eta/edo etxebizitzara sartzeko prestazio ekonomikoen arloko egungo araudia berrikustea , honako hau bermatzeko: - Etxebizitza autonomo batera sartzeko laguntza ekonomikoko premiak estaltzea. - Ohiko etxebizitzetan autonomoki mantentzeko nahikoa intentsitateko laguntza ekonomikoa.
g)	Gizarte-alokairuko parke publikoa areagotzea , bereziki etxebizitza hutsak aktibatzeako programak indartzearen bitartez, hala nola Bizigune edo ASAP.
h)	Etxebizitza partekatuko programak tokiko mailan abian jartzea eta erkidego-mailan bultzatzea, programan eskuragarri dauden etxebizitza kopurua areagotuz eta gaur egun ezarritako sarbide-baldintzak berrikusiz.
i)	Alta-protokoloak diseinatzea eta aplikatzea , erregimen itxiko zentro edo zerbitzuak (ospitaleak, espetxeak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako ostatu-zerbitzuak, adingabeen barneratze-zentroak...) uzten dituzten pertsonen etxebizitza-alternatiba zehatz bat dutela bermatzeko horietatik irteten direnean.
j)	Esku-hartze azkarreko zerbitzuak garatzea; horiek gai izango dira kalean edo espazio publikoetan lo egiten ari direla identifikatutako eta etzegabetasuneko historiarik gabeko pertsonak identifikatzeko, eta horiek baliabide egokietara bideratzeko.
k)	Familia-bitartekaritzako programak sustatzea , etzegabetasun-egoera ekar dezaketen familia-unitateen haustura-egoerak saihesteko eta/edo horiek gertatzen badira, egoitza-bazterkeriako egoera bihurtzen ez direla bermatzeko.

2. ardatzaren gidalerroak. Etxebizitzan oinarrituriko ikuspegia garatzea	
a)	Etxebizitza baten legezko okupaziorako edo etxebizitzarako prestazio ekonomikorako sarbidearen eskubide subjektiboa arautzen duen Dekretua onartzea.
b)	Autonomia-erkidegoko administrazioaren eta udalen arteko hitzarmenak sinatzea, udalez gaindiko sare bat eratzeke pixkanaka sektore behartsuenetarako , Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.
c)	Lankidetzak-akordioak ezartzea gizarte-zerbitzuetako udal-sailen eta etxebizitzako udal-sailen artean egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak etxebizitzaz hornitzeko , tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzuaren hornidura nahikoa izateko bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat (1.9.2).
d)	Autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuen eskualde guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzetarako(1.9.2) .
e)	EAEko gizarte-zerbitzuen sektore guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea gizarteratzeko laguntzadun etxebizitzetarako , bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroen esparruan (2.4.5).
f)	Gizarteratze-ibilbide batekin konprometitu ezin duten edo nahi ez duten pertsonen eta/edo arazoaren jakitun ez diren eta egoera aldatzeko motibaziorik ez duten pertsonen zabaltzea Zorroaren Dekretuan ezarritako bigarren mailako ostatu-baliabideak gizarte-bazterkerian dauden pertsonentzat .
g)	Gizarte-bazterkeria moderatu eta larrian dauden pertsonen zabaltzea gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3) ; hartara, zerbitzu horietatik intentsitate baxuko gizarte- eta hezkuntza-arloko arreta ibiltaria eskaini ahal izango zaie titulartasun publiko edo pribatuetako etxebizitzetan ostatu hartu duten pertsonen, intentsitate horretako arreta behar dutenean.
h)	Gizarte-bazterkeria moderatu eta larrian dauden pertsonen zabaltzea bizimodu independentea babesteko zerbitzua (2.7.2.1) eta familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak (2.7.3.1) ; hartara, zerbitzu horietatik intentsitate ertain eta altuko gizarte- eta hezkuntza-arloko arreta ibiltaria eskaini ahal izango zaie titulartasun publiko edo pribatuetako etxebizitzetan ostatu hartu duten pertsonen, intentsitate horretako arreta behar dutenean.

3. ardatzaren gidalerroak. Gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzuetako baliabideak eta programak hobetzea.

- a) Udaleko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetatik gizarte-bazterkeria larrian dauden eta/edo egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen **kasuak kudeatzeko baterako esku-hartze eredu** bat egitea.
- b) Gizarte-zerbitzuen sistemaren zati diren **eguneko eta gaueko ostatu- eta harrera-zentroetan baterako esku-hartze eredu bat egitea**, bizi-kalitatea, pertsonalizazioa eta autodeterminazioa oinarri dituzten esku-hartzeak bermatzeko.
- c) Modu esperimentalean eta Zerbitzuarekin lotutako prestazioaren figurara joz **"aurrekontu indibidualak"** garatzea etxerik ez duten eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzat.
- d) **Ingurune irekian esku hartzeko programak bultzatzea**, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuen esparruan (1.3), kalean lo egiten duten etxerik gabeko pertsonentzat eta/edo gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonentzat.
- e) Autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuen eskualde guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea, **gizarte-bazterkeriako egoeran dauden eguneko arretarako zerbitzuen arloan (1.7)**.
- f) Autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuen eskualde guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea, **gizarte-bazterkeriako egoeran dauden gaueko harrera-zerbitzuen arloan (1.8)**.
- g) Autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuen sektore guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea, **gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroen arloan (2.2.3)**
- h) EAEko hiru lurralde historikoetan garatzea **egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5.1) eta gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroak (2.3.2)**.
- i) Esku hartzeko plan indibidualak eta protokoloak garatzea **Zorroaren Dekretuan aurreikusitako harrera- eta ostatu-zentroen erabiltzaileak ahalik eta lasterren etxebizitza independenteetara sar daitezen errazteko**, gizarte-zerbitzuek eskainitako intentsitate aldagarriko laguntza ibiltariarekin.
- j) EAEko lurralde guztietan **emantzipaziorako prestatzeko zentroen eta emantzipatzeko pisuen** behar besteko eskaintza garatzea, Zorroaren Dekretuko adingabeentzako egoitza-zentroen esparruan (2.4.4), eta lehen edo bigarren mailan gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko programetako zentroak uzten dituzten pertsona guztiei zabaltzea.
- k) Zorroaren Dekretuaren parte diren bazterketa-egoera arin, moderatu edo larrian dauden pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako **betebehar material eta funtzionalak arautzea**.
- l) Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako **eguneko eta gaueko ostatu- eta harrera-zentroak ebaluatzeko eta zentro horietako kalitatea bermatzeko (eta, hala badagokio, berregokitzeko) berariazko kanpaina** bat abian jartzea.

4. ardatzaren gidalerroak. Genero-ikuspegia indartzea egoitza-bazterkeriari aurre hartzeko eta arazo hori lantzeko politiketan

- a) Lurralde historiko bakoitzeko Gizarte Zerbitzuen Mapak egiterakoan, Zorroaren Dekretuan ezarritako ostatu-zentroetako tokien zenbateko jakin bat gordetzea **egoitza-bazterkeriako egoeran dauden emakumeek bakarrik erabil ditzaten**. Zentro horietara atxikitako langileek (baita segurtasuneko langileak ere), gainera, emakumeak izan beharko lukete batik bat.
- b) **Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuetako profesionalak espezializa daitezen** sustatzea, **bai eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetako kasuen kudeaketako funtzioen ardura duten profesionalak ere**, egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden emakumeak orientatzeko eta laguntzeko prozesuetan.
- c) **Genero-ikuspegia sartzeko jardunbide egokien gidaliburuak edo eskuliburuak** egitea egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonentzako zentroetan, zentro mistoak gai izan daitezen emakumeen premia espezifikoak erantzuteko.
- d) -Egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen arretaren arloan lan egiten duten erakundeetan **berdintasun-planak** egin daitezen sustatzea, profesionalen artean nahiz erabiltzaileen artean berdintasuna bermatzeko.
- e) Egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden edo egon diren **emakumeen arteko elkarreki-ko laguntza-taldeak** gara daitezen sustatzea.

5. ardatzaren gidalerroak. Etxerik gabeko pertsonen herritarren eskubideak dituztela bermatzea, euren administrazio-egoera erregulatuta.

- a) **EAEko udalek jarduera espezifikoak** garatzea **lurraldean bizi ohi diren etxerik gabeko pertsona guztiak errolatzea errazteko**, lotarako lekua gorabehera, Udalerrolda kudeatzeari buruz udalei emandako jarraibide teknikoei buruzko Ebazpenaren (Presidentetza Ministerioaren 2015eko martxoaren 16koa) 3.3 atalean ezarritako baldintzetan.
- b) Desgaitasuna izan dezaketen edo mendekotasun-egoeran egon daitezkeen egoitza-bazterkerian dauden pertsonen **desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoerak aitortzea errazteko neurri zehatzak** abian jartzea.
- c) EAEn modu iraunkorrean bizi diren eta egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsona guztiek **Osasun Txartel Indibiduala izatea bermatzeko neurri zehatzak** garatzea, baldin eta horrelakorik ez badute.
- d) **Fiskaltzekin jarduera-protokoloak ezartzea muturreko narriadura duten etxerik gabeko pertsonekin esku hartzeko irizpideak zehazteko**, horien tutoretza judizial eraginkorra bermatzeko.

6. ardatzaren gidalerroak.Sektorekako hobekuntzak egitea osasunean, diru-sarreraren bermean eta enplegua eskuratzeko orduan	
a)	EAEko hiru lurraldeetan tratamendu asertibo komunitarioko (TAK) programak garatzea buruko nahasmendu larria duten etxerik gabeko pertsonentzat.
b)	EAEko hiru lurraldeetan suspertzeko programa edo zentro soziosanitarioak sortzea ospitale-zentro batean alta emandako eta/edo gaixotasun edo mediku-tratamendu batetik sendatzen ari diren etxerik gabeko pertsonentzat, sare soziosanitarioko zentroetan plazak erreserbatuz eta/edo gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroetako plaza jakin batzuk aldi baterako erabiliz.
c)	Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko Dekretua berrikustea (ekainaren 26ko 114/2012) , osasun-arreta publikoan erroldatuta ez dauden etxerik gabeko pertsonak sartzeko dirautenoztopoak ezabatzeke.
d)	Sistema horretan modu autonomoan maneiatzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen besteak beste osasun-zerbitzuetara laguntzeko eta haiekin bitartekari-funtzioak egiteko programak antolatzea bultzatzea.
e)	Diru-sarrerak bermatzeko errentara sartzeko betebeharrak betetzen dituzten etxerik gabeko pertsonen sarbidea errazteko programa edo unitate espezifikoak ezartzea, bai eta jaso ditzaketen gainerako prestazio ekonomikoetarakoa ere (kotizatu gabekoen pentsioa...).
f)	Enplegurako orientazioko programa zehatzak ezartzea egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonentzat.
g)	Egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak zentro okupazionaletan, enplegu-zentro berezietan, laneratzeko enpresetan eta laguntzadun enplegu-programetan sartzeari errazteko neurriak bultzatzea.
h)	Etxerik gabeko pertsonak enplegu-politika-tako "premia bereziko" kolektiboen artean sartzeari , kontratazio-pizgarrietan kalitate-irizpideak txertatuz kontratuen kalitatearen eta egonkortasunaren arabera.

7. ardatzaren gidalerroak. Etxerik gabeko pertsonen aisialdia eta hezkuntza izan dezaketela eta gizartean nahiz politikan parte har dezaketela bermatzea.

- a) **Ettxerik gabeko pertsonen elkarteetan parte har dezatela bultzatzea eta arazo horien eragina jasaten duten pertsonen** zuzenean eragiten dieten politika publikoekin lotutako **diagnostikoak egitean eta erabakiak hartzean parte har dezatela sustatzea.**
- b) **Erabiltzaile adituaren figuran oinarritutako programak** gara daitezela sustatzea, egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden edo egon diren pertsonen esperientzia eta ezagutza aprobetxatze aldera.
- c) **Jardunbide egokien eskuliburu eta gidaliburuak egitea erabiltzaileek erabiltzen dituzten zentro eta programen kudeaketan parte har dezatela bultzatzeko.**
- d) Egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen **kultura- eta kirol-ekipamenduak erabiltzea errazteko programa zehatzak** garatzea.
- e) **Gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak sare sozialak eta teknologia berriak erabiltzen trebatzeko eta gaitzeko** programak garatzea.
- f) Berezi etxerik gabeko pertsonen parte hartzeko **Helduen Etengabeko Ikaskuntzako jarduerak bultzatzea.**

8. ardatzaren gidalerroak. Komunitatearen sentsibilizazioa eta inplikazioa hobetzea egoitza-bazterkeriari aurre hartzeko eta arazo hori lantzeko.

- a) **Gizarte-zerbitzuetako sailen, hirugarren sektoreko erakundeen eta udaletako eta autonomia-erkidegoko segurtasun-taldeen arteko lankidetzak-protokoloak** ezartzea etxerik gabeko pertsonen biktimizazio-egoerei aurre hartzeko neurriak eta gerta daitezkeen kasuen ikerketa eta ebazpena abian jartzeko.
- b) **Ettxerik gabeko pertsonen aurkako gorroto-krimenekin lotutako sentsibilizazio-gidak** egitea herritarrentzat oro har, bai eta gizarte-zerbitzuen, osasunaren, justiziaren eta segurtasunaren arloko profesionalentzat ere.
- c) **Alerta azkarreko eta datuak jasotzeko sistema** bat garatzea bazterkeria-egoeran dauden pertsonen aurka eginiko gorroto-delitu eta -krimenekin lotuta.
- d) **Estilo-eskuliburu bat egitea eta komunikabideetako profesionalekin prestakuntza-jarduerak egitea** egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen lotutako estereotipoak ezabatzen laguntzeko.
- e) Laguntza ekonomikoak emanez eta/edo laguntza teknikoak eta gainbegiratzeak eskainiz, **auto-antolakuntza komunitarioa eta bizilagunak antolatzeak sareak** sustatzea **egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak babesteko zerbitzuak eskaintzeko.**
- f) **Jardunbide egokien gidaliburuak, protokoloak edo eskuliburuak garatzea bizilagunen onarpena eratzeko** etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentroak eta -programak ezartzeari eta zentro horien eta eremu bakoitzeko bizilagunen eta komunitateen elkartearen arteko lankidetzak egituratzeari dagokionez.

9. ardatzaren gidalerroak. Koordinazio, jarraipen, ebaluazio eta ezagutzen kudeaketa-neurriak

- a) **Gizarte-zerbitzuetako eskualde guztien mailan hirugarren sektoreak eta gizarte-zerbitzu, enplegu, etxebizitza eta diru-sarreraren bermearen arloan lan egiten duten erakunde guztiek parte hartzen duten koordinazio-mahaiak ezartzea**, jarduerak koordinatzeko eta lurraldean oinarritutako estrategia integralak ezartzeko.
- b) **Esku hartzeko eredu komunak egitea Zorroaren Dekretuan ezarritako gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako zentro eta zerbitzuetarako**, arauak eta erregelamenduak, sartzeko baldintzak, eskaintako prestazioak eta esku hartzeko estrategiak bateratzeko.
- c) Eusko Jaurilaritzaren, foru-aldundien eta Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteizko Udalen artean ezarritako hitzarmena bultzatzea **gizarte-bazterkeria larriaren arloan ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko**.
- d) Gizarte Zerbitzuetako eta Etxebizitzako Behatokiaren bitartez, **datuak argitaratzea eta ikerketa espezifikoa egitea sustatzea egoitza-bazterkeria larriarekin eta horiei erantzuteko garatutako politika publikoekin lotuta**.
- e) **Prestakuntza-jarduerak** garatzea egoitza-bazterkeria larriaren arloan, bai arlo desberdinetako profesionalentzat (etxebizitza, enplegua, gizarte-zerbitzuak, osasuna, justizia, garraioak, segurtasun-taldeak...), bai herritarrentzat oro har, boluntarioentzat, komunikabideentzat eta erantzukizun politiko edo instituzionalak dituztenentzat.
- f) **Metodologia komun bitartez ebaluazioak egitea** bultzatzea, gizarte- eta/edo egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzearen arloan gaur egun esku hartzen duten zentro eta programetako kalitateari eta emaitzei buruz.
- g) **Etxerik gabeko pertsonen egoerari** eta egoitza-bazterkeriaren aurkako politika publikoei buruz **herritarrek duten hautemateari buruzko inkesta zehatzak** egitea bultzatzea.
- h) **Mintegiak eta ikerketa- eta azterketa-jardura batzuk antolatzea** bultzatzea, **egoitza-bazterkeria larriko alderdi guztietan jardunbide egokiak hedatzeko, aztertze eta trukatzeko**.
- i) **Prestakuntzako, graduako eta graduondoko plan zehatzak** garatzea egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonekin lan egiteko gizartearen arloan esku hartzeko profesionalak espezifikoki gaitzeko.